
BARNE-ERREGIMENAREN ARAUTEGIA

2023KO UZTAILAREN 19KO EZOHIKO BATZAR NAGUSIAN ONARTUTAKO TESTUA



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Iparragirre, 9 48009
Bilbao
Tel. 946 569 230
info@sareensarea.eu
www.sareensarea.eus



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

HITZAURREA.....	2. orria
I. KAPITULUA. ELKARTEA ORO HAR	2. orria
II. KAPITULUA. BAZKIDE DIREN ERAKUNDEAK	2. orria
A) ONARPENeko PROZEDURA.....	2. orria
B) ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	4. orria
C) KUOTAK.....	4. orria
D) BAZKIDE IZATEARI UZTEA	5. orria
III. KAPITULUA. GOBERNU ORGANOAK	5. orria
III.1 BATZAR OROKORRA	5. orria
III.2 ZUZENDARITZA BATZORDEA.....	7. orria
III.3. BATZORDE IRAUNKORRARENA	9. orria
IV. KAPITULUA. BATZORDEAK ETA LANTALDEAK	10. orria
V. KAPITULUA. AHOLKULARITZA BATZORDEARENA	12. orria
VI. KAPITULUA SAREEN SAREKO LANGILEAK	13. orria
VII. KAPITULUA. BARNE ARAUDIAREN ERREFORMA	14. orria



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

HITZAURREA

Sareen Sarearen Estatutueta jasotako amaierako xedapena gauzatuz, Barne Araudi honek garatzen eta zehazten ditu elkartearen estatutuak haren antolaketa eta funtzionamendua hobetzeko. Inola ere ez ditu aldatuko bertan jasotako aginduak.

I. KAPITULUA. ELKARTEA ORO HAR

1. artikulua- Hirugarren Sektore Sozialeko Sareen Sarea elkarte, indarrean dagoen legeriaren arabera eraturakoa, G-95763082 IFK eta Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroko B/18504/2014 zenbakia dituen, 2014ko apirilaren 8an onartutako elkartearen Estatutuek, Barne Araudi honek eta legeen arabera aplikagarria den araudiak xedatutako arau guztiek arautzen dute.

2. artikulua- Estatutuek, Barne Araudiak eta Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoak osatzen dute SAREEN SAREAREN erreferentziazko oinarritzko arau esparrua.

Araudi honek elkartearen Estatutuek adierazitako edukiak garatzen ditu eta inola ere ezingo du Estatutu horietako artikuluen eta filosofiaren aurkakoa izan. Halaber, honako Araudia lerrotuta dago Elkartearen Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoarekin, eta haren osagarria da.

3. artikulua- Barne Araudi hau indarrean sartzeak eraginik gabe utziko du 2015eko abenduaren 14an egindako Ezohiko Batzar Orokorrean onartutako prozedura hau: *Sareen Sareko sarrera berrien prozedura*.

II. KAPITULUA. BAZKIDE DIREN ERAKUNDEAK

A) ONARPEN PROZEDURA

4. artikulua- SAREEN SAREA elkarteko erakunde bazkide izan daitezke baldintza hauek guztiak betetzen dituzten elkartearen sareak:

- a. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 6/2016 Legeko 2.2 artikuluaaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialekoak direnak eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundearen Erroldan sartuta daudenak.
- b. Indarrean dagoen legeriaren arabera eraturako pertsona juridikoak, irabazi-asmorik gabeko erakunde-izaera aitortuta dutenean.
- c. Hiru lurralde historikoetan presentzia izatea.
- d. Bigarren eta hirugarren mailetako erakundeak izatea; hau da, elkartearen elkarte edo federazioa, enpresa-elkarte edo izaera sozialeko zuzenbide publikoko korporazioa, erakunde berri hori hasieran eratzen duten erakundearen sareren bateko kide ez direnean eta haietakoren baten edo haietako batzuen elkarte berriak ez direnean.



- e. Sinatu Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoa, atxikitzeko klausularen bidez. Haren subsidiarioritasun-printzipioak sarean parte hartzera eta sarea indartzera behartzen zaituzte, Sareen Sarea osatzen duten antolaketa mailen arteko interrelazio esparru simetrikoa eta osagarria mantenduz.

5. artikulua- SAREEN SAREko kide izateko, hala nahi duten sareek idatziz eskatu beharko dute bertan sartzea. Presidentetzari bidali beharko diote, posta-helbide honetara: Iparragirre, 9, lonja. Bilbo. Idatziarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Dagokion organoak igorritako akordioaren ziurtagiria. SAREEN SAREko kide bihurtzeko eta SAREEN SAREaren Estatutuak ezagutzeko eta onartzeko asmoa, eta elkartean ordezkatzeko duen pertsona fisiko titularraren eta ordezkorearen izendapena jaso beharko ditu ziurtagiriak.
- Dagokion erregistro publikoan inskribatzeko eskumena duen erakundeak igorritako ziurtagiria.
- Erakundearen estatutuen kopia.
- IKF.
- Jakinarazpenetarako helbidea.
- Erakundearen azken ekitaldiko jardueren memoria eta memoria ekonomikoa.
- Dagoeneko SAREEN SAREko bazkide diren bi sareren abala. Abala ematen duten erakundeek sareko idazkaritzari zuzendutako idatzia aurkeztu beharko dute erakunde horri bermea emateko beren erabakia arrazoituta.
- Kontu hartuta ez egotearen eta gobernu-organoak benetan eta modu eragingarrian hautetsiak izan direnak direla dioen erantzunkizunpeko adierazpena.

SAREEN SAREko Zuzendaritza Batzordeak sartzeko prozesuan beharrezkotzat jotako dokumentazioa zabaltzea eskatzeko eskubidea izango du erreserbatuta.

6. artikulua- Informazio osoa jaso eta Zuzendaritza Batzordeak helburu horrekin izendatutako batzordeak aztertu ostean:

- 1.- Aurrez ikusitako baldintza guztiak betetzen dituela usteko balu, eskaera egin duen sarearekin lehen bilera deituko luke. Bilera horretan izango lirerateke, gainera, honako hauek: SAREEN SAREko idazkaritza, presidentetza eta, dagokionean, egokitzat jotako Zuzendaritza Batzordeko beste pertsona batzuk. Topaketa horren helburua kide bihurtu nahi duen erakundearen eta erakundearen Zuzendaritza Batzordearen arteko gerturatzea egitea da. Bileraren ondoren, onartu izanarekin edo ez onartu izanarekin lotutako txosten arrazoitua igorri beharko da eta bilera ondoren egiten den lehen Zuzendaritza Batzordeko bileran landu beharko da.



2.- Baldintza guztiak ez dituela betetzen ulertuko balitz, hilabete bateko epean horiek konpontzea eskatuko zaio egokitzat joz gero, edo Zuzendaritza Batzordeari txostena igorriko zaio ez onartzeko proposamena arrazoituz.

Zuzendaritza Batzordeak eskaera aztertu eta onartzearen aldeko edo aurkako balorazioa egingo du. Bi kasu horietan, ebazpena arrazoitzen duen txostena igorri eta aktan jaso beharko da.

Eskaera egin duen sareari emango zaio hartutako erabakiaren berri, eta hark hilabete bateko epea izango du egokitzat jotako gaiak argudiatzeko eta Zuzendaritza Batzordean gai hori berriro latzeko.

Prozesu osoan, igorritako txostenen kopia bidaliko zaie eskaera egin duen erakundea abalatu duten sareei.

Zuzendaritza Batzordearen behin betiko ebazpena aurkakoa balitz, eskaera egin duen erakundeari horren berri emango zaio. Era berean, abalatu duten sareen bidez Ohiko Batzar Orokorrean gorako helegitea aurkezteko aukera izango duela jakinaraziko zaio.

Prozedura amaitutzat emango da horrekin.

7. artikulua- Zuzendaritza Batzordeak sare hori SAREEN SAREAn sartzeko aukera ebatzi eta Batzar Orokorrak bertaratutako edo ordezkaturako erakunde gehiengo kalifikatu bidez (baiezko botoek behar bezala igorritako botoen bi heren gainditzen dutenean izango da) berretsi ostean, sareak SAREEN SAREAK antolatutako jarduera guztietan parte hartu ahal izango du.

SAREEN SAREAK Presidentetzat sinatutako ongietorri-gutuna bidaliko du.

B) ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

8. artikulua- Bazkide diren erakundeen eskubideak izango dira elkarteko Estatutueta 32. artikuluan jasotako guztiak.

9. artikulua- Bazkide diren erakundeen betebeharrak izango dira elkarteko Estatutueta 33. artikuluan jasotako guztiak.

10. artikulua- Araudi honek jasotzen duen moduan, bazkide den erakundeak SAREEN SAREAn ordezkaturako duen pertsona fisiko titularra eta ordezkaria izendatzeko betebeharra du. Bazkide den erakundeak ordezkari titularra eta/edo ordezkaria aldatzea erabakiko balu, horren berri idatziz eman beharko dio elkarteko Zuzendaritza Batzordeari.

C) KUOTAK

11. artikulua- Estatutueta 33. artikulua xedatutakoa betez, bazkide diren erakundeen betebeharrak izango dira hauek: *“estatutuen arabera, bazkide den erakunde bakoitzari dagozkion kuotak, derramak eta gainerako ekarpenak ordaintzea”*.



Sareen sareea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Elkartearen beharren arabera, kuotak ohikoak edo ezohikoak izango dira. Batzar Orokorrak onartuko du kuota Zuzendaritza Batzordeak proposatu ostean. Irizpideak zein haren zenbatekoa ezarriko ditu. Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du ekitaldi bakoitzerako urteko kuota ordaintzeko hilabetea zein den.

Sareen Sarean sartzen diren erakundeentzat: onarpena lehen hiruhilekoan gertatuko balitz, erakundeak urte natural horri dagokion kuota ordaindu beharko du. Bigarren hiruhilekoan gertatzen bada, kuotaren % 75 ordaindu beharko du; % 50 hirugarren hiruhilekoan gertatzen bada, eta % 25 laugarren hiruhilekoan gertatzen bada.

Dagokion kuota ordaintzen ez duten erakundeei Zuzendaritza Batzordeak kuota ordain dezaten errekerimendua bidaliko die. Zuzendaritza Batzordearen ustez baliozko argudiorik gabe bi ekitaldiz jarraian horrela jarraituko balute, elkartean baja emango lukete. Erabaki hori, hasiera batean, Zuzendaritza Batzordeari dagokio eta batzarrean berretsi beharko da.

D) BAZKIDE IZATEARI UZTEA

12. artikulua- SAREko kide den edozein erakundek kasu hauetan baja eman dezake:

a) Pertsona juridikoaren desegiteagatik.

b) Borondatezko bereizketagatik: kide den erakundeak modu askean eta edozein unetan uko egin diezaioke elkarteko kide izateko baldintzari. Kasu horretan, baja idatziz eskatu beharko dio Presidentetzari eta horrekin lotuta eskaera egin duen erakundeko organoak adostutako akordioaren akta edo ziurtagiria ere gehitu beharko du.

c) Zigorragatiko bereizketa dela eta: Sareko Zuzendaritza Batzordeak kide den erakunde baten ez-borondatezko baja erabaki ahal izango du Batzarrean behin betikoz berretsi arte honako hau uste badu: modu larrian, errepikakorrean eta nahita bere betebeharrak ez dituela bete, edo Sareen Sareko estatutuetatik, Barne Araudi honetatik edo Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak behar bezala adostutako akordioetatik eratorritako betebeharrak ez dituela bete.

Zigorragatiko bereizketa-prozedura Estatutuetako 35. artikulutik 39.era arteko prozeduran jasotakoaren arabera egingo da.

III. KAPITULUA. GOBERNU ORGANOAK

III. 1 BATZAR OROKORRA

13. artikulua- Kide diren erakundeen Batzar Orokorra Estatutuetako 8. artikulutik 14.era artekoetan xedatutakoaren arabera arautzen da.

Batzarrean eskubide osoko kidea izango da kide diren erakunde horietako bakoitza ordezkatzeko duen pertsona bakoitza. Kide diren erakundeek honako hauek egin ahal izango dituzte:



A. Behar bezala ziurtatutako (erakundeko idazkaritzak emandako ziurtagiria, notario-ahalordeak...) pertsona baten bidez, batzarrera zuenean joatea. Akreditazio hori Sareko idazkaritzari entregatu beharko diote batzarra egiten den unean edo aldez aurretik posta arruntez edo posta elektronikoz.

B. Estatutueta 14. artikulua xedatutakoaren arabera, kide den beste erakunde bati eskuordetzea bere ordezkari. Kasu horretan, eskuordetzeak Sareko idazkaritzan jasota egon beharko du batzarra egin baino 24 ordu lehenago gutxienez.

Zuzendaritza Batzordeak, bere ekimenez edo sareko kide diren erakundeen % 25ek hala eskatuta, batzarrera egokitzen jotako pertsonak gonbidatu ahal izango ditu. Horrekin lotuta, gonbidapenaren arrazoiak gain, gonbidapena batzar osorako edo puntu batzuetarako den, eta presentziala soilik izango den edo esku-hartzeren bat izango duen zehaztu beharko da: Edonola ere, gonbidapenak hitza emateko eskubidea jaso dezake, baina inoiz ez botoa ematekoa.

Gonbidaturen bat joanez gero eta, gai horrekin lotutako bozketa guztiak isilpekoak izango direla zaintzeko, bozketak sekretuak izango dira.

Era berean, Zuzendaritza Batzordeko talde teknikoak egokitzen jotako pertsonak joan ahal izango dute, botoa emateko eskubiderik gabe.

14. artikulua- SAREEN SAREAREN Estatutueta 22. artikulua xedatutakoaren arabera, Zuzendaritza Batzordearen funtzioa da honako hau: *“ohiko eta ezohiko batzar orokorretako deialdiak adostea”*.

Elkarteko Estatutueta 11. artikulua xedatutakoaren arabera, *“Batzar Orokorra ezohiko saioan bilduko da Zuzendaritza Batzordeak hala adosten duenean bere ekimenez edo kide diren erakundeen % 50ek hala eskatzen duenean. Horrekin lotuta, arrazoiak eta bileraren amaiera zehaztu beharko dira”*.

Deialdia gutxienez 15 eguneko epearekin egin beharko da posta arruntez edo posta elektronikoz. Honako hauek jaso beharko ditu: gai-zerrenda, bileraren lehen deialdiko data eta tokia eta, dagokionean, bigarren deialdiko.

Ohiko zein ezohiko batzar orokorrak behar bezala eratu geratuko dira lehen deialdian boto-eskubidea duten eta kide diren erakundeen bi heren agertzen direnean, eta bigarren deialdian, boto-eskubidea duten eta kide diren erakundeen erdia joaten denean.

15. artikulua- Batzarraren aurreko dokumentazioa. Batzarra behar bezala garatzeko egokitzen jotako dokumentazioa gutxienez 10 egun lehenago bidaliko die Zuzendaritza Batzordeak kide diren erakundeei.

16. artikulua- Batzarra honako hauek osatuko duten MAHAIK zuzendu eta moderatuko du: Sareko presidentetza eta idazkaritza. Presidentetzak egingo ditu moderatzaile-lanak, eta idazkaritzak batzarreko idazkari-lanak.

Presidentetza agertzen ez denean, lan hori Presidenteordetzak hartuko du bere gain, eta biak faltako balira, Batzarreko adin handieneko kideak.



Idazkaritzarik ez balego, lan horiek helburu horretarako Zuzendaritza Batzordeak izendatutako pertsonak hartuko ditu bere gain.

17. artikulua- Batzarrean, Zuzendaritza Batzordearen deialdian aipatutako gai-zerrendari jarraituko zaio.

Gai-zerrendako puntu bakoitzak, gutxienez, hitza emateko txanda itxi hauek izango ditu: azalpena, argibideak, alde, aurka edo botoaren azalpena. Moderatzaile-lanak egiten dituzten pertsonak, hala nahi dutenean, hitza emateko ondoz ondokoak eta itxiak diren txandak ezarri ala ez ezartzea erabaki ahal izango dute.

Dena den, eta posible den guztietan, eta aurreko guztiari kalterik eragin gabe, parte-hartzea bultzatzeko, Zuzendaritza Batzordeak bi hilabete lehenago jakinaraziko die kide diren erakundeei batzarra deitzeko asmoa duela haiek, 15 eguneko epean, gai-zerrendan txertatu ahal izateko gairen bat bidal diezaioten Zuzendaritza Batzordeari idatziz. Gai-zerrendan gai hori haien ustez zergatik txertatu beharko litzatekeen justifikatzen duen arrazoiketa gehitu beharko da. Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du gai hori gai-zerrendan sartzea edo ez sartzea den egokia.

18. artikulua- Batzar Orokorren akordioak, Estatutueto 13. artikuluen arabera, honela adostuko dira: *“bertan edo ordezkaturik dauden erakundeen bi hereneko gehiengo kalifikatu bidez. Gehiengo hori baiezko botoek behar bezala igorritako botoen bi heren gainditzen dituztenean aterako da”*. Akordio horiek izaera loteslea izango dute sareen sareko kide diren erakunde guztientzat. Hala ere, ahalik eta adostasun handiena lortzeko asmoa mantenduko da eta Estatutueto hitzaurrean adierazitako adostasun-helburua ahalbidetuko da.

Aktan jasoko dira Batzarreko akordioak eta akta hori bazkide guztientzat eskuragarri egongo da Batzarra egin eta hurrengo 15 egun baliaduneko epean.

III.2 ZUZENDARITZA BATZORDEA

19. artikulua- Zuzendaritza Batzordea Estatutueto 15. artikulutik 23.era artekoen arabera arautzen da.

20. artikulua- Zuzendaritza Batzordea hautatzea: Zuzendaritza Batzordeko kide diren erakundeak hiru urteko aldirako hautatuko dituzte Batzar Orokorrean boto-eskubidea duten eta kide diren erakundeen artean sufragio librearen, zuzenaren eta sekretuaren bidez.

Bozkatuko dituzten pertsona bakarreko organoetarako hautagaitzak zerrenda itxietan aurkeztuko dira.

Honako hau izango da Zuzendaritza Batzordea berritzeko prozesua:

- 1.- Indarrean dagoen Zuzendaritza Batzordeak, legezko epeen arabera, kide diren erakunde guztiei jakinaraziko die bozketak egingo diren batzarra egin baino hiru hilabete lehenago hauteskunde-prozesua hasiko dela.



2.- Pertsona bakarreko organoetarako hautagaitzak aurkezteko epea ezarriko da: hauteskunde-prozesua hasiko dela jakinarazten den unetik batzarra egin baino hilabete bat lehenago artekoa izango da.

3.- Hautagaitza guztiak jasotakoan, Zuzendaritza Batzordeak jendaurrean aurkeztuko ditu kide diren erakunde guztien aurrean batzarra egin baino hilabete bat lehenago.

4.- 15 eguneko epea ezarriko da hautagaitzek beren proposamenak aldatu eta adostasuneko hautagaitza aurkeztu nahi badute. Dena den, behin betiko hautagaitzak batzarra egin baino 15 egun lehenago aurkeztu beharko dira gutxienez.

4 Bis . Bozketa egin aurretik, zerrenda bakoitzak bere hautagaitzaren proiektua justifikatzeko argudioak aurkeztu beharko ditu.

5.- Batzarrean hautagaitzak aurkeztu eta bozketa egingo dute. Zerrendak zerrenda itxi gisa bozkatuko dira lehen aipatutako irizpideak zaindu ahal izateko. Boto gehien lortzen duen zerrenda hautatuko da.

21. artikulua- Zuzendaritza Batzordea hilean behin elkartuko da ohiko bileran, abuztuan izan ezik, eta beharrezkotzat jotako aldi guztietan ezohiko bileran Presidentetzak edo kideen erdiak hala eskatuta.

22. artikulua- Estatutuetako 17. artikuluetan aurrez ikusitako asistentziako hutsek dagokion kargua uztea eragingo dute.

23. artikulua- Sarearen kanpoko ordezkariak: Zuzendaritza Batzordeak koordinatuko eta antolatuko du Batzordearen arabera SAREEN SAREAK presente egon beharko lukeen organismo, foro eta ekitaldietan izango duen kanpoko ordezkariak. Horretarako:

- a) Urtero prestatuko da **erakunde mailako ordezkariak-taula**. Bertan zehaztuko dira presente egon beharreko foroak eta SAREEN SAREA foro horietan ordezkatzeko izendatutako pertsonak.
- b) Barne-funtzionamenduko beren estatutuak eta araudiak dituzten erakundeen kasuan, hautaketa-, txandakatzeko- edo lagapen-prozesua organismo horietako araudira egokitu beharko da.
- c) Erakunde mailako ordezkariak-taula kide diren erakunde guztiei ezagutaraziko zaie.

SAREEN SAREA ordezkatzeko izendatutako pertsonak:

- Talde teknikoaren laguntza izango dute lana errazteko.
- Egindako lanaren zein sortutako informazioaren berri eman beharko diote dagokion foroan Zuzendaritza Batzordeari eta, zehazki, Presidentetzari. Presidentetzak talde teknikoari eskuordetu ahal izango dio lan hori.

Zuzendaritza Batzordearen bilera bakoitzean (Presidentetza edo Presidentetzak eskuordetutako talde teknikoak) aurkeztuko da erakunde mailako harremanen txostena,



eta kide diren erakundeen esku jarriko dira foro ugarietan sortutako aktak eta dokumentazioa.

24. artikulua- Sareen Sareko ordezkari-tza-gastuak likidatzea: Sareen Sarearen Estatutu-tako 20. artikulua-k xedatutakoa betez, *“Zuzendaritza Batzordearen karguak doakoak izango dira, baina horrek ez dio kalterik eragingo beren funtzioak betetzeak eragiten dizkieten gastuen ordaina jasotzeko eskubideari (horiek justifikatu ostean). Batzar Orokorrak, dagokionean, Zuzendaritza Batzordeko kideen dietak eta gastuak ordaintzea ezarri ahal izango du”*.

25. artikulua- Zuzendaritza Batzordeko kargua uztea: Zuzendaritza Batzordeko kideek beren karguak utziko dituzte arrazoi hauek direla eta:

- a) Agintaldia amaitzea.
- b) Borondatezko dimisioa.
- c) Ordezkatzen duen sare-erakunde-kide den erakunde izateari uztea edo ezintasuneko kausaren batean sartzea.
- d) Estatutu-tako 18. artikuluan aurrez ikusitakoa aplikatuz, Batzar Orokorrak adostutako baliogabetzea.
- e) Desegitea.

26. artikulua- Zuzendaritza Batzordeko kide gisa agintaldia etetea: honako arrazoi hauek direla eta gertatuko litzateke etete hori:

- a) Erakunde interesdunak etetea eskatzea hori justifikatzen duten gorabeherak gertatzen direnean eta Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeak onartzen duenean.
- b) Sareen Sareko kide den erakundearen izaera etetea.
- c) Erakunde-ari ezarritako diziplina-espeditentearen instrukzioak irauten duen denboran, Zuzendaritza Batzordeak hala adosten badu.

27. artikulua- Zuzendaritza Batzordeko kideen kargu-uztea gertatuko balitz, elkarteko Estatutu-tako 21. artikuluan xedatutakoaren arabera jardun beharko da kargu berriak hautatu arte.

28. artikulua- Presidentetzak, elkarteko Estatutu-tako 24. artikuluan xedatutakoa betez, haren legezko ordezkari-tza hartuko du bere gain eta Zuzendaritza Batzordeak adostutako akordioak gauzatuko ditu.

Presidentetzaren ahalmenak izango dira Sareen Sareko Estatutu-tako 25. artikuluan ezarritakoak.

Presidentetzak zuzenduko du talde teknikoa bere lanean eta, horretarako, Zuzendaritza Batzordeko beste kide batzuen laguntza jaso ahal izango du.

III.3 BATZORDE IRAUNKORRARENA

29. artikulua- Sareen Sarearen Estatutu-en 7. artikulua-k ezartzen duen moduan, *“Zuzendaritza Batzordeak Batzorde Iraunkor bat era dezake, eta haren esku utz ditzake egokitzat jotzen dituen eta bereak dituen eskumenak”*.



30 artikulua- Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du zein izango diren Batzorde Iraunkorreko kideak. Batzordeko kide titularrak izan beharko dute, haien karguaren baitan, eta ezingo dute Batzorde Iraunkorraren bileretako parte-hartzea Zuzendaritza Batzordeko ordezko kideen esku utzi.

Nolanahi ere, Batzorde Iraunkorrek honako kideak izango ditu: presidentea, presidenteordea, idazkaria, diruzaina eta Zuzendaritza Batzordeak izendatutako batzordekideak, gehienez ere bi.

31 artikulua- Batzorde Iraunkorraren ardura izango da Batzordeen arteko aldietan erakundearen funtzionamendu onerako beharrezkoak diren akordioak lortzea, hurrengo Zuzendaritza Batzordera arte itxaron ezin den edo itxarotea gomendagarria ez den kasuetan. Batzorde Iraunkorrek hartutako erabakiak berretsi egin beharko ditu deitzen den hurrengo Zuzendaritza Batzordeak.

32 artikulua- Batzorde Iraunkorrek erabakitze-funtzioa ere izango du; hala, Zuzendaritza Batzordeari zuzendutako proposamenak hausnartu, eztabaidatu eta prestatu beharko ditu.

33 artikulua- Batzorde Iraunkorrek Zuzendaritza Batzordeko beste kide batzuk gonbidatu ditzake bilerara, landu beharreko gairen batean beharrezkoa bada.

34 artikulua- Batzorde Iraunkorrek akta batean jasoko ditu hartutako erabakiak, eta akta hori ahalik eta azkarren jakinaraziko die Zuzendaritza Batzordeari eta instituzioaren parte diren erakunde guztiei, behin-behinekoa izan arren.

35 artikulua- Batzorde Iraunkorraren bilera bakoitzean aurreko bilerako akta berrikusi eta onartuko da, eta erakundeko Idazkariak sinatuko du akta, Presidentearen oniritziarekin.

36 artikulua- Presidenteak deituko ditu Batzorde Iraunkorraren bilerak.

37 artikulua- Batzorde Iraunkorra hilean behin bilduko da, gutxienez, Zuzendaritza Batzorde batetik besterako epearen erdialdean.

38 artikulua- Batzorde Iraunkorraren erabakiak, normalean, adostasun bidez hartuko dira. Bozketa eginez gero, gehiengoz hartuko dira erabakiak; parte-hartzaileen bi herenek osatzen dute gehiengoa.

IV. KAPITULUA. BATZORDEAK ETA LANTALDEAK

39 artikulua- Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordearen edo Batzar Orokorraren ekimenez, batzorde egonkorrek sortuko dira Sareen Sarearen eremu espezifikoetako ekintzen eta proiektuen jarraipena egiteko, baldin eta garrantzi estrategikoa badute, gure sektore osoaren aniztasuna zeharkatzen duten gaiak lantzen badituzte eta behar iraunkorrei edo epe luzeko beharrei erantzuten badiete.

40 artikulua- Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Orokorrek hala erabakita, *ad hoc* Lantaldeak sortu ahal izango dira iraungitze-data duten eta, hortaz, aldi baterakoak diren proiektu edo jarduera jakin batzuk gauzatzeko.



41 artikulua- Batzordeak eta Lantaldeak kide diren erakundeen lanerako guneak dira, eta parte hartu nahi duten eta kide diren erakunde guztientzat irekita daude.

42- artikulua- Osaera: Honakoek osatuko dituzte Batzordeak edo Lantaldeak:

- Zuzendaritza Batzordeak haren kideen artean izendatutako pertsona bat, Sareen Sareko gobernu-organoekiko lotura izango dena.
- Sareen Sareko kideak diren erakundeek izendatutako pertsonak, batzordeari dagokion gaian esperientzia duten edo adituak diren pertsonak lehenetsiz; kide den erakunde bakoitzak pertsona bat baino gehiago izenda ditzake.
- Koordinaziorako lantalde teknikoko pertsona bat gutxienez.

Batzordeen kasuan, kide diren erakundeek pertsona titular bat eta haren ordezkoa izendatuko dituzte.

Batzordeek eta Lantaldeek, gutxienez, Sareen Sareko bazkide diren lau sarez osatuta egon beharko dute, haien eraketa baliozkoa izan dadin.

43 artikulua-Funtzionamendua: Batzordeek eta Lantaldeek honako arau hauek izango dituzte:

- a. Batzordeek eta Lantaldeek beren ondorio eta proposamenak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dizkiote onar ditzan.
- b. Batzordeen eta Lantaldeen akordioak adostasunez hartuko dira, eta posible ez denean, bertaratuen bi hereneko gehiengoaz.
- c. Derrigorrezkoa da kide den erakunde batek parte hartzeko konpromisoa hartu duen Batzorde edo Lantaldeetara joatea. Idatziz komunikatu beharko zaio talde teknikoari agertu ez izana.
- d. Koordinaziorako lantalde teknikoari dagokio Batzordeen eta Lantaldeen idazkaritza teknikoko lana egitea. Lan horren baitan daude hauek: deialdia egitea, gai-zerrenda proposatzea, akta egitea, lan-saioa moderatzea eta dinamizatzea.
- e. Halaber, Koordinaziorako talde teknikoaren eta Zuzendaritza Batzordeak izendatutako pertsonen esku egongo da Batzordeetan eta Lantaldeetan jorratutako gaien inguruko informazio frogagarria Zuzendaritza Batzordeari ematea.
- f. Batzordearen edo Lantaldearen saioa egiteko quoruma hura osatzen dutenen % 50ekoa izango da. Ehuneko hori gabe ezingo da Batzordea edo Lantaldea egin. Edonola ere, beti saiatuko gara kideen parte-hartze handiena errazten.
- g. Batzordeek eta Lantaldeek ohiko bilerak egingo dituzte aldian behin, gutxienez, hiru hilean behin. Ezohiko bilerak ere egin ditzakete egokitzat ikusten dutenean.



- h. Batzordeek eta Lantaldeek Lan Plan bat prestatu beharko dute hasieran, eta ondoren hura ebaluatu eta inpaktua neurtu beharko dute.

V. KAPITULUA. AHOHKULARITZA BATZORDEARENA

44 artikulua- Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordearen edo Batzar Orokorraren ekimenez, Aholkularitza Batzorde bat sortuko da Hirugarren Sektore Sozialaren oinarriko gaiei buruz eta sareek eta erakundeek gizartean duten funtzioaz hausnartzeko.

45 artikulua- Izaera: Sareen Sareko Aholkularitza Batzordea kontsultarako organoa da, eta Hirugarren Sektore Sozialari, gizarte-politikei eta herritarren (batez ere, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak) eskubide zein interes sozialei eragiten dieten arazoak ezagutzeko, aztertzeko, horien gaineko aholkularitza jasotzeko eta horietan parte hartzeko bide gisa balio du.

46 artikulua- Funtzioak: Sareen Sareari haren estrategiak eta jarduketak diseinatzen eta garatzen laguntzea da Aholkularitza Batzordearen funtzioa, Sareen Sarea epe ertainean eta luzean orientatzeko ideiak eta iradokizunak eskaintzearen bidez.

Honako hauek dira funtzioetako batzuk:

- Sareen Sarearen helburuarekin eta xedeekin lotutako gaiei buruz eta herritarren (batez ere, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak) eskubideei eta interes sozialei buruz eztabaidatzea eta Sareen Sareari horri buruzko aholkularitza eta proposamenak eskaintzea, eta Hirugarren Sektore Soziala bultzatzea.
- Hirugarren Sektore Sozialarekin lotutako eragileen arteko harremanak indartzeko orientabideak iradokitzea, hobekuntzak eta sektorearen eraginkortasun eta kohesio handiagoa lortzea errazteko.
- Sareen Sarearen xedeak lortzen lagunduko duen beste edozein helburu.

47 artikulua- Jarduera: Aholkularitza Batzordeak ez du zertan akordiorik lortu, baina kontsulta-txostenak edo proposamen-txostenak egin ditzake Presidentetzak hala eskatuz gero. Dena den, txosten horiek ez dira lotesleak izango Sareen Sareko gobernu-organozat.

48 artikulua- Osaera: Gehienez 10 kidez osatuta egongo da:

- a. Sareen Sareko Presidentea, Presidenteordea eta Idazkaria.
- b. Edozein arlotako adituak, eremu publikokoak zein pribatukoak, Hirugarren Sektore Sozialaren gainean edo gai eta politika sozialen gainean dituzten ezagutzengatik nabarmentzen direnak.

Sareen Sareko presidentea izango da Aholkularitza Batzordeko presidentea, eta Koordinazioaren eta erakundeko lantalde teknikoaren laguntza izango du.

49 artikulua- Aholkularitza Batzordeko kideei buruzko irizpideak:



- a. Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeari dagokio kideak izendatzea eta ordezkatzeta, Presidentearen proposamena aintzat hartuta eta Aholkularitza Batzordeari entzunda, behin hura martxan dagoenean.
- b. Kide kopurua malgutasunez alda daiteke Zuzendaritza Batzordeak berariaz adostuta, eta kideak hiru urterako izendatuko dira; izendapena berritu egin daiteke aldi hori igarotakoan.
- c. Aholkularitza Batzordeko kideak dohainik ariko dira haien karguetan.

50 artikulua- Funtzionamendua: Honako oinarrizko arau hauek izango ditu Aholkularitza Batzordeak:

- a. Organo berriak ohiko bilera bat egingo du urtean behin, eta behar adina aldiz egingo ditu ezohiko bilerak, garatu beharreko jarduerak martxa onean joan daitezen, betiere, Presidenteak, Zuzendaritza Batzordeak, Batzorde Iraunkorrek edo kideen heren batek eskatuz gero.
- b. Idazkariak prestatuko ditu deialdia eta gai-zerrenda, Presidenteak hala aginduta.
- c. Eraketa baliozkoa izan dadin, lehenengo deialdian kideen erdiek gehi batek egon beharko dute gutxienez, edo bigarren deialdian gutxienez heren batek; lehenengo deialdia baino ordu erdi geroago egingo da, gehienez, bigarren deialdia. Edozein kasutan, bertan egon beharko dute Presidentetzak, Idazkaritzak edo horiek ordezkatzten dituzten pertsonak.
- d. Akordioak gehiengo soilaren bidez eskuratuko dira.
- e. Idazkariak memorandum bat egingo du, landutako gaiak eta lortutako akordioak labur jasoko dituen.

VI. KAPITULUA. SAREEN SAREKO LANGILEAK

51. artikulua- Kontratututako pertsonen lan-baldintzak legez aplikagarria den hitzarmen kolektiboak arautuko ditu.

52. artikulua- Koordinazioaren kontratazio-prozesua Zuzendaritza Batzordearen erantzukizunekoak izango da; koordinazio arloko erantzukizuna, aldiz, taldeko gainerako kideen esku egongo da.

Sareen Sarearen talde profesionalaren egitura zehaztearen ardura Zuzendaritza Batzordeak hartuko du bere gain, eta taldeari esleitutako Giza Baliabideen kudeaketa koordinazio-postuaren esku egongo da.

53. artikulua- Koordinazioarekin lotutako lan arloko gaiak Zuzendaritza Batzordearen eskumenekoak izango dira eta Zuzendaritza Batzordeak hala adostuko balu, batzorde bati eskuordetu ahal izango lizkioke. Talde Teknikoko gainerako gaiak Koordinazioaren eskumenekoak izango dira.



Sareen sareea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

54. artikulua- Batzar Orokorrari, gutxienez, honako gai hauen inguruko informazioa eman beharko zaio: kontratatutako langileak, kategoriak eta soldatak.

VII. KAPITULUA. BARNE ARAUDIAREN ERREFORMA

55. artikulua- Araudi hau Zuzendaritza Batzordearen edo kide diren erakundeen % 50en ekimenez aldatu ahal izango da.

56. artikulua- Edonola ere, aldaketa egin ahal izateko, beharrezkoa izango da bertan edo ordezkatuta dauden erakundeen gehiengo kalifikatua. Helburu horrekin deitutako Ezohiko Batzar Orokorrean baiezko botoek behar bezala emandako botoen bi heren gainditzen dituztenean lortuko da gehiengo kalifikatua.

57. artikulua- Zuzendaritza Batzordeak testuarekin lotutako zuzenketen aldia ezarriko du. Zuzenketa horiek Sareen Sarearen Koordinazioari bidali beharko zaizkio 15 egun lehenago, eta kide diren erakunde guztiei zabaldu.

58. artikulua- Araudi hau berritu ostean, Zuzendaritza Batzordeak berritutako testuak eman beharko dizkie erakundeei.